

# ENPRESEN konfiantza

2025EKO 1. HIRUHILEKORAKO  
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa



LABORAL  
kutxa


# 2025EKO 1. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



## 0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko Inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresari, 2025eko lehen hiruhilekorako dituzten aurreikuspenen berri izateko. Emaitzek erakutsi dutenez, aurreko hiruhilekoan baino zertxobait negatiboagoa da ingurune ekonomikoa.

Zehazki, enpresen % 14,0k uste du egoera hobetu egingo dela oraingo hiruhilekoaren aldean; % 49,0k uste du bere horretan jarraituko duela, eta, beraz, % 36,9k, okerrera egingo duela.




# 1 | FAKTURAZIOA

FAKTURAZIOAri dagokionez, berriz, **aurreko hiruhilekoan** baino ikuspegi okerxeagoa dute enpresek 2025eko lehen hiruhilekoari begira. Zehazki, galdetutako enpresen % 20,7k uste du fakturazioa hobetu egingo dela; % 64,5en iritziz, antzekoa izango da, eta % 14,8k okerragoa izango dela aurreikusten du.




## 2 | JARDUERA

JARDUERAk, berriz, 2025eko lehen hiruhilekoan hobera egingo du % 16,7ren iritziz, eta % 23,2ren arabera, okerrera. Lagineko gainerako % 60,1ak, beraz, berdin jarraituko duela pentsatzen du.




### 3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, zalantza hau sortzen da berehala: zer portaera izango dute salmenten kopuruek eta prezioek, hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Ildo horretan, espero da eskabideek apur bat behera egitea aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta prezioek gora egitea. Ondorengo irudian ageri denez, inkestari erantzun diotenen % 22,7ren iritzian, eskabideen bolumena handitu egingo da, eta % 13,5en ustez, txikitu. Enpresen % 63,8ren iritziz, ordea, bolumena hiruhileko honetakoaren antzekoa izango da.




## 4 | PREZIOAK

Era berean, PREZIOei dagokienez, honela banatzen dira emaitzak: enpresen % 41,6k uste du igo egingo direla, eta % 54,4k, bere horretan jarraituko dutela.



## 5 | ERRENTAGARRITASUNA

Eragiketen ERRENTAGARRITASUNARI buruzko aurreikuspenei erreparatuta, erantzunen % 84,2ren arabera «txikiagoa» edo «berdina» izango da, eta enpresen % 15,8k uste du errendimendu handiagoa lortuko duela.






## 6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek ikuspegi ezkorragoa erakusten dute, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Hala, jarraian ikusiko dugunez, badirudi inbertsioa pixka bat ahuldu dela.

INBERTSIO-bolumenari begira, enpresen % 17,7k uste du gora egingo duela **2025eko lehen hiruhilekoan**. % 11,1en iritziz, berriz, behera egingo du inbertsio-bolumenak. Hortaz, inbertsioek berdin jarraituko dutelakoan dago galdetutako enpresen % 71,2.



## 7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 85,7k erantzun du ENPLEGUAn ez duela aldaketarik espero; % 10,1ek langile-taldea handitzeko itzaropena du, eta % 4,2k guztiz kontrakoa egitea aurreikusten du.




2025EKO BESTE ADIERAZLE BATZUK



## 8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak —inguruneari buruzko iritzia izan ezik— gehitu eta haztatzen baditugu, 53,6ko konfiantza-indizea lortuko dugu. Hau da, aurreko hiruhilekoko baino txikiagoa (55,6koa izan baitzen). Beraz, enpresek ikuspegi baikorra dute ekonomiaren bilakaerari buruz, 2025eko lehen hiruhilekoari begira. Indizearen balioa 50etik gorakoa izateak jarduera hedatzen ari dela adierazten du. Gainera, balioa handiagoa da eurogunean lortutakoa baino —50eko datua lortu zen urrian—, eta Estatuan baino zertxobait txikiagoa —55,2koa, urrian—.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan jasotako emaitzak aurkeztuko ditugu; ez dira aurretik azaldutako indizean sartzen. Azken urteko ESPORTAZIOen bilakaerari dagokionez, inkestaren % 26,6k uste du hobera egin duela, eta % 17,2ren iritzian, txarrera egin duela. % 56,3k uste du kanpoko salmentek bere horretan jarraitu dutela.




## 9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZari edo I+Gko EKIMENEi bideraturiko salmenten ehunekoaren inguruan, inkestaturen % 62,6 balio minimoetan kokatzen da: Ezer ez eta % 1 artean. Bestalde, % 15,8k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




## 10 | BEZEROEI KOB RATZ EKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 76,6rentzat, bezeroei KOB RATZ EKO EPEAn ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta, enpresen % 14,0ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 9,4k soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



## 11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestaturen % 81,3k erantzun du BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO aukerak berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresei dagokienez, % 12,6k dio hobetu egin dela, eta, % 6,2k, lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.






2025EAN ADIERAZLEAK IZAN DUEN  
BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA



## 12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, aztertu ditugun azken 3 hiru hilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen eta osoen balioak ikus daitezke.



# Fitxa teknikoa eta metodologia

---

EAEko 406 enpresari azaroan egindako inkesta

---